

DIRU-SARRERAK:

Materiala erosteaz gain, lanak eta apunteak igotzeko eta saltzeko aukera izango du webguneak. Erabiltzaileek dituzten proiektu eta diseinuak webgunean igotzeko aukera izango dute. Berifikazio fase bat igaro ostean, eta ez dela iruzur bat ziurtatu ostean, saltzaileak (erabiltzaileak) berak erabakiko du prezioa eta adostasun batera iritsi beharko da eroslearekin. Berifikazio prozesua egiteko, hainbat pertsona izango ditugu kontratauta, dokumentuetara sartzeko baimena izango dute eta igotako dokumentuak ea egiazkoak diren eta ondo eginda dauden ziurtatuko dute. Ea akatsik dauden ziurtatzeko, eta edukiz gero, hauek zuzentzeko lanean arituko dira. Horrela ezin izango dituzte edozein motatako lanak, dokumentuak... igo, kontrolpean egongo baita denbora guztian. Enpresa eta webgune bezala (intermediarioa), balioaren %10rekin geldituko gara, beraz 10 euro ordaintzen badute, PAYLON euro 1ekin geldituko litzateke. Webguneak iragarpenak eta publizitatea edukiko ditu etekin handiagoak atera ahal izateko.